

Urriaren 14an
URTEAN ZEHARREKO 28. IGANDEA

Agurra

Itxaropenaren Jainkoak biltzen gaitu gure fedea ospatzera; Haren bakea izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Kristoren Elizak gehien behar dutenen ondoan egoten asmatu behar du, leialtasuna eta zerbitzua bere ezaugarri ditu. Gure igandeko batzarrak alderdi horiek sakontzen, bizitzen eta ospatzen lagundu behar digu. Zabal diezaiogun bihotza gugatik behartsu egin zen Kristo Jaunari.

Damu-otoitza

Eukaristia ospatzeko eska diezaiogun Jaunari errukiz berri gaitzala:

- Jesus Jauna, barkamena eta bizia zarena. Erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, gure lotura guztientzat askatasuna. Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, gizakien ilunaldiak argitzen dituen Argia. Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltzua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara

Otoitza

**Etor bekigu bidera, Jauna, zure grazia,
eta azkeneraino lagun izan dezagula,
beti on egiteko prest egon gaitzen.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena


Jakinduria dohain handia da. Jakinduria beharrezkoa da bizitzan asmatzeko, bide egokia aukeratzeko... Jainkoaren Hitzak argi egiten digu bide horretan.

Lehenengo irakurgaia (Jkd 7, 7-11)

Jakinduriaren liburutik

Eskatu nuen, eta eman zitzaidan zentzu ona; dei egin nion, eta etorri zitzaidan jakinduria espiritua; errege makila eta aulkiak baino nahiago izan nuen; aberastasunak ezer ez zirela iritzi nuen haren ondoan; harri bitxiak berak ere ez nituen haren pareko egin, urre guztiak haren aldean hondar pixka bat baitira, eta zilarra, lokatza bezala. Osasuna eta edertasuna baino maiteago izan nuen, ezin itzalia baita haren argia. Harekin batean on guztiak etorri zitzaizkidan, eta esan ezin hala ondasun, haren eskutik.

Erantzun-salmoa (Sal 89, 12-13. 14-15. 16-17)



E - rru - ki hu - tsa du - gu Jau - na, e - rru - ki - a
 ta mai - ta - su - na.

Gure egunak bat-banatzen erakutsiezaguzu,
 bihur dakigula bihotz hau zuhur.
 Itzul zakizkigu, Jauna; noiz arte?
 Jar zaitetz zeure morroi eta mirabeen alde. R/.



Zeure maitasunaz ase gaituzu goizean,
gure egun guztietan poztu eta alai gaitezen.
Poztu gaitzazu goibeldu gaituzun egunen ordez,
ikusi ditugun gaitz-urteen ordez. R/.

Zure lana ager bedi zure morroi-mirabeengan, '
eta zure aintza zure seme-alabengan.
Gugana bedi Jaunaren, gure Jainkoaren, ontasuna,
eta gure eskulanean lagun gaitzazu,
eta gure eskuen lana lagundu ezazu! R/.

Bigarren irakurgaia (Heb 4, 12-13)

Hebrearrei egindako epistolatik

Senideok: Bizia da Jaungoikoaren hitza eta eraginkorra; bi ahoko ezpata baino sarkorragoa, arima eta espirituaren tarteetaraino, giltz eta muinen tarteetaraino sartzen dena, bihotzaren erabaki eta asmoak epaitzeko gai dena. Ez da harentzat ezer ikustezinik; dena biluts eta agerian dago haren begietan; eta berari diogu kontu eman beharra.

Aleluia (Mt 5, 3)



Zorionekoak, gogoz behartsu direnak;
berena dute eta zeruetako erreinua. R/.

Ebanjelioa (Mk 10, 17-30)

Homiliarako argibideak

Zatoz, jarrai niri

Erlijioso eta apaiz bokazioen falta askoz ere sakonagoa den krisi baten sintoma bat baino ez da. **Fedea krisian** dago Elizaren barruan bertan, eta bi talde horiei ez ezik, fededunei ere eragiten die. Elizak gazterik gabe geratu dira, baina Europako gure herrialdeak ere galdu egin dute bizia eta gaztetasuna sortzeko gaitasuna. **Bizitzak merezi duela** sinesteari utzi diote. Oso gazterik nozitzen du zenbaitek, bizitzari zentzurik bilau ezina. Zaila gertatzen da krisi horri konponbidea ematea, jendea alaiki bizi baita, gure herrialdeak gazterik gabe geratzeari garrantzirik eman gabe. Azkenak itzal dezala argia eta itxi dezala atea. Elizaren etorkizunaren kezka gaudenok, ordea, ezin gara besoak gurutze geratu. Gazteek dena utzi eta Jesusi jarrai diezaioten saiatzen jarraitu behar dugu.

Jesus bera nahiko lur jota geratu zen gazte aberats batek jarraitu nahi izan ez zionean, nahiz eta orduan eta orain balioduna den **bokazio metodo** bakarra jarraitu. Gazteen aurrera agertu eta haiei galderak egiten uztea da hasiera, baina, ondoren, Jesusek gaztearen eskuzabaltasunean sinesten duela erakusten duen erronka jotzea dator, merezi duten konpromisoak onartzeko (Mc 10,17-30). Segur aski, bi gauza horiek falta zaizkigu egun. Ez diegu galderak egin ditzaten uzten gazteei, eta ez diegu erronka baliotsu eta sinesgarririk jotzen. Gazte hark **zoriona** bilatzen zuen, haren tradizio erlijiosoaren arabera "betiko bizia" zena. Bazekien, halaber, hori ezin zitekeela ahaleginaren bidez lortu. "Oinordetzan har" daiteke, baina, fededun bihurtuta, Jainkoaren seme-alaba, beraz. Jainkoaren seme-alaba gisa, Jainko gure Aitari atsegina ematen saiatzen gara, Hark nahi duena egin da, hau da, bere aginduak beteta.

Gazteak hasitako elkarrizketa hartan dena ongi zihoala zirudien. Bat-batean, baina, Jesusek jotako erronkak krisian sartu zuen gaztearen fedea. Jesusekin topo egin zuten pertsonak eraldatuta geratu ziren. Zoritxarrez, gazte aberatsaren eta Jesusen arteko topaketak zapuztu egin zuen etorkizun zoriontsua zuela pentsatzen zuen pertsonaren bizitza. Jainkoaren aginduak ikusita, betiko bizia har zezakeen oinordetzan. Bat-batean, dena alferrik galdu eta bizitza zapuzten hasi zen, aurrerapausoa emateko gai ez zelako. **Aberastasuna** zen oztopoa.

Eskritura eta bereziki ebanjelioa oso errealistak dira beti, ongi baino hobeto ezagutzen baitute giza bihotza. Diruak ez du zoriona ematen, baina zoriona lortzen laguntzen du. Betiko herri sinesmena da hori. Egia da jakintsuak dirua, boterea edo edertasuna erlatibizatzen saiatu direla, eta **jakindurian** jarri dutela zoriona (Jkd 25,6-10). Konbentzituta daude jakinduria dela ondasun denetan gorena; are gehiago: jakinduriarekin lortzen dira beste guztiak. Dohain bat da jakinduria, opari bat, eta ezin da norberaren ahaleginaz lortu. Gaur egun, jendeak uste du diruarekin lor daitezkeela gauza guztiak. Nola dirua lortu, baina? Ahaleginarekin eta lanarekin ez, noski. Telebista maisu dugu beste bide batzuk erakusten.

Jesulentzat, berari jarraitzea eta bere taldeko kide izatea da zoriona. Horretarako, alde batera utzi behar dira aberastasunak, benetako altxorra aurkitzeko: Jainkoa bera edo Jesus. Jesus da balio absolutu bakarra fededunarentzat. Eskatera horren aurrean, gazteak ez zuen eduki aurrera jarraitzeko adorerik, eta triste alde egin zuen. Horrela kokatzen gaitu Jesusek aukera biblikoaren aurrean: **edo Jainkoa edo dirua**. Ezin dira Jainkoa eta aberastasunaren idoloa zerbitzatu. Ikasleen harriduraren aurrean, aberastasunaren arriskua zertan datzan azaldu zuen Jesusek. Aberastasuna ona da, noski, baina on erlatiboa. Zoritxarrez, gizakia amildegiaren aurrean kokatzen duen dinamismo bat dauka. Gizakia izan beharrean bere aberastasunaren

jaun, aberastasunak bihurtzen dira gizakiaren jabe. Eska diezaiogun Jaunari, Eukaristian, libra gaitzala diruaren sedukziotik, bere deiari trabarik gabe jarraitzeko.

Jainkoaren herriaren otoitza

Jaunarenganako uste onez beterik egigun otoitz:

- Kristau izateagatik sufritzen dutenek izan dezatela Ebanjelioarekin leial izatearen pozak ematen duen barne-bakea. Eska diezaiogun Jaunari.
- Nazioetako arduradunek izan dezatela egiazaletasuna eta justizia, denon ondasunak zaindu eta banatzerakoan. Eska diezaiogun Jaunari.
- Lurra landuz bizi direnek izan dezatela bere lanaren fruituak egoki jaso eta banatzeko bidea. Eska diezaiogun Jaunari.
- Igandea ospatzera biltzen garenok izan dezagula geroaren gogoz, oraina Jainkoarekin bat eginda bizitzeko grazia. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko Jauna, ezagutzen dituzu gure bihotzeko asmoak; entzun gure otoitzak eta bete gure bihotzak Zure hitzaren ederrez, Zure jakinduriak argiturik lurreko gauzak maita ditzagun zerukoak iristeko eran. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Gure Jainko handia,
apalki eskatzen dizugu,
zure Semearen gorputz-odol santuez
janaritu gaituzunok
Berarekin bat egin gaitzazula zeure jainkotasunean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**